

Boto eskea, zortzi hizkuntzatan



AINGERU EPALTZA
IDAZLEA

Sua eta mina piztu dizkigu PSNren hauteskunde kartel eleaniztunak. "Barrenak behar dira Nafarroan 2023. urtean botoa zortzi hizkuntzatan eskatzeko, euskara baztertuta. Putakumeak. Urdeak. Ezta itxura egiteko ere".

Halako purrustadak irakurri dira egun hauetan Euskal Txio Herrian, zorioneko kartelaren kontura. Behin berriz, sozialistekin koleratzeko motiboak ez zaizkigu falta. Zintzoak izan gaitezen, dena dela. Hauteskunde txartel batez ari gara. Euskara gehitu izan balute ere, botoa emanen genien?

Aurten, mota guztietako datu soziologikoak argitaratu dira bozketen bezperetan. Inoiz baino gehiago. Inoiz baino ugariagoak. Izan da euskararen ezagutza ere gurutatu duenik boto asmoarekin. Horren arabera, Nafarroan, euskaldunen %60k EH Bilduren txartela zeukaten prest hautetsontzian sartzeko. Bertze %40aren gaineko informazioa ebasten zigun delako albisteak. Hala ere, ez da uste izatekoa PSNrendako bazka handirik zegoenik aska horretan.

Ez da alde batera uztekoa gisa horretan moldaturiko kartel batean itxurakeriak zenbaterainoko karga duen. Euskaldunen aldera hain hotz dagoenak zertaz izan behar du berotasun handiagorik arabiar edo errumaniar hiztunen aldera? Hemen ez da sentiberatasun konturik, or-

dea, kalkulu hutsa baizik. Eta garbi dago PSNri, bere ikuspuntutik, errumaniera edo arabiera errentagarriak zaizkiola, euskara ez bezala. Garbi gelditu da hasieran: sozialista espainiarrak jende doilor eta mespretxagarria dira. Ez, ordea, er-gelak

Euskal abertzaleei, jakina, ez zaie halakorik gertatzen. Euskal abertzaleak ez dira segurki ez doilorrak ez mespretxagarriak. Azkarragoak ote diren, aldiz, hori ez dago hain garbi.

PSNk atera du zortzi mintzairatan ondutako afixa, ez "gureek" alemana-edo kendu eta euskara sartuta. Javier Esparza (UPN) ikusi dugu egun hauetan Sanduzelaiko meskita bisitatzen, ez Uxue Barkos. Podemoseko zerrendaburuak bildu dira etorkinen elkarteekin, ez Joseba Asiron.

Horiek ere kalkulu hutsez ari zirela? Bistan dena. Zer da politika, bada, kalkulu hutsa ez bada?

Nafar berriak Erresuma Zaharreko biztanleriaren %20 izanen dira luze gabe. Herrialde honetan sortzen diren hiru haurretarik batek estatutik kanpo jaioa du aita edo ama; gehienetan biak. Hala ere, zer begi-kliska guti egiten zaien gure mundutik. Zein keinu guti hauteskunde hauetan ere. Zein arrotz ditugun. Zein arrotz gaituzten. Gero ikastoletan eta D ereduetan nahi ditugu. Baina, hara, ez dira etortzen. ●

Zarata



LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
IRAKASLEA

Tjobiboak heldu dira auzora. Berria naizenez bertan, ez nekien zenbat entzungo zen etxetik. Egia esatera, musika ez da ia sumatzen, baina baxuek dunba-dunba eragiten dute kristaletan. Goiz ixten dituzten arren, berbena hasi da ondoan. Bafleen potentzia larregi-koa denez plaza honetarako, kantak ez dira ulertzen, eta musika burrundara bihurtu da.

Lanerako joan-etorriak trenez egiten ditut. Era eroso, merke eta garbia da. Oso gustuko dut horrela ibiltzea. Baina —beti dago bainaren bat— telefonoe-tatik ateratako poluzio akustikoak bidaiaren lasaitasuna zapuztu egiten du.

Musika, bideoak, ahots-mezuak, *story*-ak, deiak... dira soinu-banda kakofoni-koaren errudunak.

Adibide bi baino ez dira adierazteko zarata-aterune gabe bizi garela, askotan kontziente ez bagara ere. Badirudi isiluneek hustasunean amilduko gaituztela, eta entzutezko *horror vacui* jasanezina zaigula.

Gero eta atzerakada handi goa eragiten dit isiltasun bako bizitzak. Esango nuke pandemiak handitu zidala zarata gabe egoteko premia, ezinbestekoa, bestalde, buru bakea lortzeko, lasaitasuna iristeko.

Zarata-kutsadura zelan borrokatu? ●